

www.trikitixa.eus

2017. URTEARI BUKAERA ONA EMATEKO HAINBAT HITZORDU INTERESGARRI TRIKITIXA ELKARTEAK ANTOLATUTA

ITURBIDEREN PANDEROA

2017ari dagokion Soinuaren Liburutegiko 13. alea ateratu du Euskal Herriko Trikitixa Elkartek: "Iturbide, igitai jolea". Amagoia Gurrutxaga kazetari eta idazleak jaso ditu panderojole handi honen ibilerak. Liburuaren aurkezpena azaroaren 18an egingen da **Azpeitiko udaletxean eguerdiko 12:00etan**.

Trikitixa Elkarteko bazkide guztiak etxean jasoko duzue ale hau, Elkarteari ematen diozuen konfidantza eta babesa eskertzeko. Bestalde liburuak salgai egonen da Elkartearen web orrian eta ohiko dendetan.

HAZIAK. I. MAKETA LEHIAKETA

Abenduaren 9an, 17:40ean Durangoko azokan aurkeztuko da "Haziak" diskoa. Aurkezpena ahotsenean izango da eta Andoni Oruesagasti eta Uxue Kereja; Irati Gutierrez; Julen Alonso eta Eneritz Aulestia eta Ttipika taldea izanen dira beraien pieza berriak eskaintzen. Diskoa salgai egongo da Durangoko azokan bertan, trikitixa.eus web gunean eta ohiko dendetan.



PAPERETIK SOINURA PARTITURA LIBURUA

Zuzendaritzak aukeratutako 12 abestiren solfeo eta zenbakizko partiturez osaturiko liburua da: ikasle eta irakasleei zuzendutako 90eko hamarkadatik gaur egunerarteko proposamen xume bat.

DURANGOKO AZOKA

Urteroko ohiturari eutsiz, Euskal Herriko Trikitixa Elkartea Durangoko azokaren 52. edizioan izango da aurten eta azken urteetako produktu guztiak eskainiz. Aurten gainera, stand erdia beharrean osoa izango du bere produktu guztiak erakusteko.



URTE BUKAERAKO BAZKARIA

Aurten **abenduaren 16an, larunbatean, Azpeitiko AÑOTA Sagar-dotegian** antolatu du EHTEk urte bukaerako afaria. Izena emateko trikitixa@trikitixa.eus helbidera idatzi edota 943 83 28 28 telefonora deitu (goizez soilik) **abenduaren 4a** baino lehen.

ELKARRIZKETA: HAMAIKA KONTUZ JOSUNE EZAGUTUZ

Nor da Josune Arakistain?

Norberak bere burua deskribatzen duenean esandakoak ez dira egiak, baina ez dira gezurrak. Zerbait esatekotan “zorri independente bat” kontsideratzen naiz.



Nola hasi zinen trikitixa ikasten?

Oker ez banabil 9 urterekin hasi nintzen trikitixa jotzen.

Gaur egun edozein txokotan ezaguna... nola daramazu ezagun izatea?

Gozategiko kide bati entzun genion, beraien hasierako urteak deskribatzeko hitz bat aukeratu beharko balu “intentsoa” hitza hautatuko lukeela. Gure udara halakoxea izan da hain zuzen, intentsoa, bere alde on eta txarrekin.

Zer da Huntza zuretzat? Nondik dator izena?

Huntza niretzat lagun talde bat da. Bestalde, landare baten izena ere bada, “Hedera hibernica” espeziea. Aitzolek, taldeko gitarristak, gosaltzen zegoela etxe aurreko baserriko paretean ikusi zuen Huntza, eta hortik dator izena.

Proiektu berri bat daukazue orain esku artean...

Bai hori da. Bi abesti grabatu ditugu eta Durangoko Azokan izango dira salgai CD formatuan. LUMAK izena izango du eta irabazten dugun dirua Aspanogi elkartearentzako izango da.

EH-ko plazak txiki, Japoniara zoazte azaroan. Birarako prest?

Hala esan beharko... je, je. Ez dakit gure musikak nolako erantzuna izango duen bertan, eta ezjakintza horrek pixka bat urduri jartzen nau. Hala ere, seguru nago izugarrizko esperientzia izango dela eta primeran pasako dugula.

Trikitixatik bizitzeko asmorik?

Zoritxarrez ala zorionez, ezin dugu jakin etorkizun hurbilean ere non aurkituko dugun gure burua. Beraz, momentuan dudarekin bizi behar! Errealitate gordinen zortedun gutxi batzuk bizi dira musika mundutik, gustatuko litzaidake horietako bat izatea, baina gustoko ditut beste lanbide batzuk ere.

“Emakumeak plazan egin du karrera”. Nola ikusten dituzu emakumea eta plaza?

Bai, egin dute karrera, baina karrera hori oraindik ez da amaitu, lan handia dugu egiteko! Beraz, emakume guztiak animatzen ditut oholtzetara salto egitera!

Igo duzun aldaparik gogorrena?

Astero, astelehenetakoa.

Eman duzun azken kalabaza?

Nire pixukidearen kalabaza purea ez probatzearena! Ja, ja, ja (egia da!)

Amets bat?

Ametsetan jarraitzea.

GOZATEGI, ZUZENEAN 25 URTE

25 urte bete ditu Gozategi taldeak plazaz plaza, herrietako giroa alaituz, generazio ezberdinak dantzan elkartuz. Urteurren hau ospatzeko zuzeneko kontzertuaren DVDa, CD bat eta dokumental bat bildu dituzte zilarrezko ezteiak gogoan edukitzeko. Iruñean, Bilbon eta Donostian emanaldi bereziak eskaini dituzte uda honetan, hainbat lagun eta gonbidatu berezirekin, tartean Iker Galartza, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Xabi Solano, Ainhoa Gozategi eta bertze hainbat hurbileko lagun. Lan berri hau BERRIA-ren webguneko denda, edota Durangoko azokan ere eskuragarri egonen da.



disco
BERRIAK



JOSEBA TAPIA: BESAMOTZAK

Bere zazpigarren bakarkako diska aurkeztu zuen Joseba Tapiak azaroaren 8an Usurbilen. Besamotzak disko honetan gitarrarekin ageri bada ere, zenbait kantu trikitixarekin ere grabatu ditu. Hainbat musikari izan ditu lagun proiektuan: Txus Aranburu organoarekin, Iker Uriarte baterian, Iñigo Telletxea baxuan, Dani NARBATE trikitixarekin eta Mainer Ansa kantuan. Gaztelupeko hotsak diskoetxearekin grabatutako, 11 kantuz osatutako diskoa, Elkarren, Tirikitraukin, josebatapia.com, edota hotsak.com en egonen da salgai. Orain aurkezpen kontzertuen txanda du Tapiak: Azaroaren 12an Usurbilen, 14ean Bilbon, 16an Iruñean, eta 28an Gasteizen.

NOMADAK

Emon taldea deseginda sortutako taldea da Nomadak. Taldekide gehienak berdinak izaten jarraitzen dute, nahiz eta aldaketa batzuk egon diren: Joanes gitarrarekin, Xabi baxuarekin, Julen Arrieta baxua utzi eta abeslari eta Aritz Alustizak lehen bezala trikitixa jotzeaz gain sintetizadore soinuak sartuko ditu akordeoi diatoniko batekin. Momentuz taldeak ez du disko fisikorik aterako, baina astero abesti berri bat igoko du sareko gune ezberdinetara: spotify, youtube... Orain zuzeneko kontzertuak prestatzen ari da taldea eta hainbat emanaldi eskainiko dituzte datozen hilabeteetan; esaterako azaroaren 17an Azkoitiko Zurt tabernan, abenduaren 2an Zaldibarko gaztetxean, abenduaren 5ean Ahotsenean, abenduaren 16an Alegiako gaztetxean eta urte bukaeran Bergaran.



EROKOMERI: IZAN

Orain dela 4 urte sortu zen Azpeiti inguruko hainbat musikariz osatutako Erokomeri taldea. 10 abesti biltzen dituen "Izan" lan berria aurkeztuko dute abenduaren 7an arratsaldeko 16:20ean Durangoko azokan. Andoaingo Garate estudioak-en grabatu dute autoekoizpeneko diskoa eta Durangoko azokan autoekoizleen txokoa, Usurbilgo Aitzagan, Azpeitiko Orkatzen eta Lasarteko Ilargin egonen da salgai besteak beste. Asier Aizpuru, Eider Iturralde, Josu Furundarena, Maialen Bastida, Martin Altuna, Miren Cuerdo eta Unai Olaizola taldekideek, Pirritx eta Porrotx eta Iraurgi ikastetxeko umeen abesbatzaren kolaborazioa ere izan dute diskoan.

KEPA JUNKERA: FOK

Hainbat proiektutan murgilduta ibili da Kepa Junkera azken hilabeteetan eta horren fruitu dira sortu berri dituen 3 proiektuak: ENLLÀ, FOK eta TE. Enllà proiektua Josep Maria Ribelles harpajole katalanarekin gauzatu duen lana izan da. Fok berriz, "Països Catalans"-ei eta bertako kulturari egin dion omenaldi bat da. Junkerak bere sentimendu eta emozioak gehituz ukitu berezia eman dio lan honi eta 200 musikari baino gehiagok parte hartu duten 34 abestirekin osatutako disko bikoitza izan da emaitza. Hirugarren proiektua TE, japonieraz "eskua" adierazten duelarik, Samurai Accordion taldearekin laster aterako duen diskoa izanen da. Bertan Kepa Junkeraz gain, Riccardo Tesi (It), Markku Lepistö (Fin), David Munnely (Irl) eta Simone Bottassok (It) parte hartuko dute.



TXAPITO GUZMAN & IBARRAKO LANGOSTINUEK

2016an sortutako Durangaldeko talde honek, taldearen izen bereko lehenengo diskoa kaleratuko du abenduan. J Abaunza baxuan, Asto gitarran, Potti baterian eta Petite trikitixarekin, ranxera erritmoak izanen dira nagusi beraien diskoan. 8 kantuz osatutako lana, 8 €-tan egongo da salgai ohiko saltokietan.

EDURNE ITURBE

Nola ikusten duzu trikitixaren etorkizuna?

Nik uste dut aurrera aterako dela. Trikitixa jotzen duten taldeak sortzen badira ez da arazorik izango, gainera gaur egun gazteek nahiago dute taldeetan jo txapelketetan parte hartzea baino. Gaur egungo arazoa irakasleen falta da. Trikitixa irakasleren batek baja hartzen badu zaila da ordezkoa topatzea.

Noticias de Gipuzkoa. 2017-10-24

MAIXA LIZARRIBAR

Musika bizibide izateak, plazaz plaza eta diskoen salmentaz eguneroko ogia lortzeak, gehiago du itzaletik argitik baino...

Gu bere garaian dezente mugitzen ginen eta asko jotzen genuen, baina diskoen salmentatik ezin da jan, ez. Ez dakit euskaldunik egongo den horretaz bizi denik... Baina era berean, errekonozitua izateko, oso lan ona egin behar duzu. Edo kanpotik bira bat egin, adibidez. Gainera, badirudi sare sozialetan ez bazaude ez zarela existitzen. Eta irratian ez bazaude ere, ez zara existitzen. Irratian zure kanta jartzen zuten aldiro, bazi-rudien jotzen ari zinela. Eta gaur egun ere horrela da. Irratiak sekulako eragina dauka. Zer gertatzen da? Euskal musika gutxiago entzuten dela orain irratian. Kanpoko musika jartzea aberasgarria iruditzen zait, baina portzentajeak ez dira egokiak.

Tolosaldeko ataria. 2017-10-22

Panderojoleek hainbat oihu egiten dituzte beren bikotea animatzeko. Hona hemen horietako bat sudoku honetan ezkutatua!

OSATU EZAZU!

A	R		
		A	
			I
		E	



ANTZUOLAKO TRIKITI JAIALDIA

Azaroaren 25ean arratsaldeko 18:00etan ospatuko da Antzuolako II. Trikiti jaialdia. Hauek izanen dira parte hartzaileak: Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea, Naiara Mantzidor, Maddi Alberdi eta Iñaki Etxaide, Ander Agirrebeña eta Unai Andonegi, eta Eneko Arbeo eta Mireia Ibabe.

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

Beste urte batez Nazioarteko Trikitixa Jaialdia ospatuko da Getxon. Aurten azaroaren 25ean izanen da, arratsaldeko 19:00etan. Jaialdian AEB, Galizia, Irlanda eta Euskal Herria batuko dira; David W. & Caitlin Romtvedt, Pablo Vergara & Matthew Ward, Imuntzo eta Beloki, eta Josune Arakistain, Aitor Huizi eta Uxue Amonarriz (Huntza). Ondoren trikitijaia izango da Algortako Azebarri Kultur Elkartearen. Jaialdirako sarrerak Algortako kultur etxean, www.kutxabank.es edota egunean bertan emanaldia hasi baino lehen Areetako Andres Isasi Musika eskolako txarteldegian egonen dira salgai (8€).

NAFARROAKO IV. TRIKITI JAIALDIA

Urtarrilaren 27an izanen da IV. Nafarroako Trikiti Jaialdia Lesakan. 7 lurraldeak elkartuz Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako bikote banak hartuko dute parte jaialdian. Lesakan izanen da Harriondoa aretoan arratsaldeko 17:30ean. Sarrerak (12€) nafarroakotrikitixaelkarrea@gmail.com helbidean erreserbatu daitezke abenduaren erdialdetik aurrera.

XABI SOLANOREN PROIEKTU BERRIA

Abenduaren 15ean Andoaingo Bastero Kulturgunean ikusgai izanen da Xabi Solanoren proiektu berria. Bizitzari irribarre bat eskaini dioten trikitilari guztiei omenaldi festa bat izango da, horretarako oholtza dantzarako plaza bihurtuko dutelarik. Hainbat musikari, dantzari eta aktore taularatuko dira: Arkaitz Miner, Kristina Solano, Zigor DZ, Txus Aranburu, Haritz Beristain, Mikel Laskurain, Ana Elordi, Kukai dantza konpainia etab. Sarrerak eskuragarri daude Kutxabanken.